



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 10a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Murillo el Frutoko Udalaren herri-lurretako 159.224 metro koadro onura publikoak direla deklaratu eta horien desfektazioa onesteari buruzko ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trena egiteko beste hitzarmen bat sinatzeko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoarekiko bere desadostasun osoa adierazi eta hura errefusatzeko, eta Espainiako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldek aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da produktu finantzarioen ikuskapen-kanpaina bat egin dezan, balizko abusuzko klausulak hautemate aldera. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Espainiako Gobernua premiatzen da berriro azter dezan kaskoaren derrigorrezkotasuna bizikleta erabiltzaileentzat, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen denaren arabera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko, negoziazioei Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua mantentze aldera. Mozioa erretiratzea (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baititu Zangozako Udalak Esako urtegiaren segurtasunari eta hura handitzeari buruz eginiko eskaerak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak esku hartu eta bitartekari lana egin dezan, Irurtzungo “Inasa Foil” enpresako lanpostuak mantentzea eta hartzekodunei ordaintzea lortze aldera. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Lasaitasuna” eta “El mirador de Yesa” urbanizazioetan, Esako urtegiaren eskuinaldeko mazelan izan diren lerraduren ondorioz ebakatu diren etxebizitzetako buruzkoa, Marisa de Simón Caballero andreak egin (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren aurrean defendatuko dituen 2013. urterako defizit helburu berekiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen planari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin (14. or.).
- Galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko enplegu eskaintza publikoari buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (15. or.).
- Galdera, zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (16. or.).
- Galdera, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehazteko eta aztertzeke ikerlanari buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Zangozako San Salvador elizari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (18. or.).
- Galdera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funtsaren banaketako formularen gainean NUPek egin duen azterlanari buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Garraioen Kontseiluari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egin (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Murillo el Frutoko Udalaren herri-lurretako 159.224 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzko ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak Murillo el Frutoko Udalaren herri-lurretako 159.224 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzko ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Murillo el Frutoko Udalaren herri-lurretako 159.224 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzko ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeinak bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Murillo el Frutoko Udalaren herri-lurretako 159.224 metro koadro onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onesteari buruzko ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legeak herrilurretako 159.224 metro karraturen desafektazioa onetsi zuen, geroago Indugarbi S.L. enpresari saltzeko, hondakinak berreskuratu eta balioztatzekeo industria-gune bat eraiki zezan.

Legean honako baldintza hauek ezarri ziren:

“C) Murillo el Frutoko Udalak bere konpromisoa bete eta desafektaturiko lurra saltzean lorturiko dirua erabil dezala alor berriak erosteko; alor horiek herrilurretan sartuko dira.”

Ekainaren 24ko 7/2004 Foru Legeko 2. artikuluko C) puntua aldatzeko proposamena. Haren bidez Murillo el Frutoko Udalaren herri-lurretako 159.224 metro karratu onura publikokoak direla deklaratu eta horien desafektazioa onetsi zen.

Hain zuzen ere, 2.C artikulua aldatzekoa, ahalbidetzeko herrilur horien salmentaren bidez lortutako zenbatekoa, 243.787 euro, erabil dadin Nafarroako Ubideko X. sektoreko herrilur ureztagarrietan lehorreko lurra ureztalur bihurtzeko, eta ez laborantzako beste alor erabilgarri batzuk eskuratzeko, gero herrilurren sailean sartzeko.

Zioak: Gure ustez herrilurretako lehorreko lurra ureztalur bihurtuz balio handiagoa eransten zaio herrilurrari, lehorreko lurzatiak erosiz baino.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana Beltrán Villalba andreak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean arautzen da, besteak beste, entitate publikoek eginko herrilur-aprobetxamendua. Aprobetxamenduen prezioak urtero eguneratzeko bi adierazle aipatzen dira: KPI eta nekazariak eta abeltzainek jasotzen dituzten prezioen indizeak.

Nafarroako Gobernuak, urtarrilaren 15eko 14/2013 Foru Aginduaren bidez, Nafarroan 2012. urtean nekazariak eta abeltzainek jasotako prezioen indizeetan izan diren urtetik urterako aldaketak ezarri zituen.

Aipatu foru aginduan informazio estatistikoa ematen da, Nafarroako nekazariak eta abeltzainek nekazaritzako produktuengatik ekitaldian jasotako prezioen indizeetan izan diren aldaketa tasei buruz.

14/2013 Foru Agindua dator Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea betetzetik. Izan ere, aipatu legearen 27. artikulua agintzen du hura erabili behar dela Nafarroako toki entitateek nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzan egindako herrilur-aprobetxamenduen urte anitzeko errentamenduen prezioaren urteroko eguneratzean.

Aipatu artikulua gehitzen du ezen herrilurren gainerako aprobetxamenduetan, urtebete baino iraupen luzeagoa dutenean, eguneratze hori egiten dela kontsumoaren gaineko prezioetan erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten duen gorakadaren ariora.

14/2013 Foru Aginduan jasotzen den nekazaritzako produktuen gorakada %15,11 da, eta kasuen araberrako aldaketak %4,5etik %37ra artekoak dira; animalia produktuetan gorakada %9,36 da, eta aldaketak, produktuen arabera, %-7,7tik %10era artekoak; zuraren kasuan ezartzen den gorakada %3,24 da. Era horretan, 2012. urterako ezartzen den gorakada %12,1 da.

Iragandako denboragatik eta nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzan egindako herrilur-aprobetxamenduak eguneratzea aplikatzeak erabiltzeak sortu dituen eraginengatik, beharrezkoa da eguneratze formula egokitzea.

Halatan, 2/1995 Foru Legeak jadanik berak aukera ematen du eguneratzea KPIren bidez egiteko, eta adierazle hori egokiagoa eta bidezkoa da gaur egun.

Izan ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialak berak erakusten du, 2013. urtean zehar, nafar udalek bi aukerak erabiltzen dituztela herrilur-aprobetxamenduei buruzko udal ordenantzetan. Alegia, batzuetan eguneratze-oinarritzat KPI hartzen da (gehienetan zehaztu gabe adierazlea Nafarroakoa edo Espainiakoa den), eta beste batzuetan erabiltzen den formula da lehen sektoreko produktuen aldaketa. Egoera honek aholkatzen du irizpide bateratua ezartzea, herrien artean desberdintasunik sor ez dadin.

Artikulu bakarra.

Bat. 27. artikuluko lehen lerrokadaren aldaketa. Honako testu hau izanen du:

“Aprobetxamenduaren iraupena urtebete baino luzeagoa denean, behar diren ordenantzetan edo baldintza-pleguetan klausula bat jarriko da, aprobetxamenduaren kanona edo prezioa urtero egu-

neratzekoa, kontsumoaren gaineko prezioetan erakunde ofizial eskudunak Nafarroarako onesten duen gorakadaren ariora. Gorakada hori izanen da, gehienez ere, dagokion ekitaldian erabilitako KPIkoa.”

Bj. 27. artikuluko bigarren lerrokada kentzea.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trena egiteko beste hitzarmen bat sinatzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berriz ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei, Prestazio Handiko Trena egiteko beste hitzarmen bat sinatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Duela gutxi jakin dugu garrantzizko aldaketa egingen dela prestazio handiko trenaren proiektuan, zeinak, aurreikusitakoaren arabera, gure erkidegotik igaro eta Aragoi eta Euskal Y-arekin lotu behar baitzuen, halako moduz non bai pertsonen bai salgaien Europarako sarbide zuzena izan zezaten, horrek Nafarroarako ekar zezakeen garapenarekin.

Antza denez, bizi dugun egoera ekonomikoa aitzakiatzat hartuta, PPK erabaki du, UPNrekin elkar hartuta, prestazio handiko trenbidearen zati

hori Castejón eta Iruña arteko 70 kilometroetara bakarrik mugatzea, eta hori irrigarria da benetan. Bestalde, iragarri da aurreko proiektuaren ordeztu beste bat gauzatuko dela, nabarmen merkeagoa, zeina baita hirugarren errail bat eraikitzea, gure trenbideak nazioarteko zabalerarekin bateragarri egiteko. Baina emaitza hori ez da inola ere hasierako proiektukoaren balioidea.

Halaber, hemeroteke kontsultatzean ikusi dugu 2006an Nafarroako Gobernuak Herri Lanetako kontseilaria zen Álvaro Miranda jaunak "lardas-keriatzat" jo zuela aipatu hirugarren errail hori. Beraz, deigarria da UPNren irizpide aldaketa.

Nafarroako abiadura handiko korridorea dela eta PPren Gobernua egiten ari den kudeaketa erabat negargarria da. Eta ulertezina da UPNk halako kaltea onartzea Nafarroarentzat. Nafarroak hamar urte baino gehiago daramagu proiektu horren alde borrokatzen, jada errealitate bilakatu zena eta sinesgarritzat jotako denbora-epean gauzatzeko finantzaketa eta epeak bazituen. Baina orain proiektu hori zapuztu dute.

Proiektu berri honekin Nafarroarentzat garrantzitsua den aukera bat galduko dugu; izan ere, Kantauri-Mediterraneo korridorearen parte izateari utziko diogu, zeinak bidea ematen baitzuen bi itsasoaren artean salgaiak garraiatzeko, bai eta bi gune logistiko garrantzitsu sortzeko, bata Noainen eta beste bat Tuteran, eta halako balizko proposamen bat Sakanan gauzatzeko ere. Halaber, ezin dugu ahaztu asmo hori jasota zegoela abiadura handiko trenbide-loturen sare bat garatzeko proiektu europar batean, eta hemendik aurrera Nafarroa proiektu horretatik bazterturik geratzeko dela.

Proposatzen den konponbide berria, behin-behineko dela esaten bada ere, behin betikoa izanen da azkenean; izan ere, izanen duen kostuak, bai gainegiturari bai geltokietako sarbideei eta trenen trafikoko kudeaketa berrirako beharrezkoak

diren beste alderdi tekniko batzuei dagokienez, bideraezina egiten du etorkizunean trazadura berri bat egitea. Finantzaketari dagokionez, zaila da une honetan obra hori abian jartzea, eta etorkizunean ez du justifikazio ekonomikorik izanen behin betiko konponbidea egiten hasteak. Hirugarren erraila egiten bada, inoiz ez da eginen abiadura handiko trazadura osoa, hori egiazko diru-xahuketa bailitzateke.

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Gobernuari exijitza berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei,

Sustapen Ministerioaren bidez, Prestazio Handiko Trena egiteko epeen kronograma jasoko duen hitzarmen berri bat sinatze aldera eta, hala, proiektua lehenago aurreikusitako moduan mantentze aldera, Nafarroak jarrai dezan Zaragozaren eta Euskal Y-aren arteko Pirinioetan zeharreko Oinarritzko Sarean, gure ustez hori baita gure Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta industria-lerako aukerarik onena.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 29an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoarekiko bere desadostasun osoa adierazi eta hura errefusatzeko du, eta Espainiako Gobernuarekiko bere desadostasun osoa adierazi eta hura errefusatzeko du, eta Espainiako Gobernuarekiko bere desadostasun osoa adierazi eta hura errefusatzeko du bertan behera utz dezan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoarekiko bere desadostasun osoa adierazi eta hura errefusatzeko du, eta Espainiako Gobernuarekiko bere desadostasun osoa adierazi eta hura errefusatzeko du bertan behera utz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Badira hilabete batzuk Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional baten bidez errefusatu zuela Espainiako Gobernuak abian jarri nahi zuen hezkuntza erreforma; LOMCE, alegia. Iritzi hori bera gailendu da Hezkuntza Batzordean izan ditugun hainbat agerraldi eta lan-saioretan.

Nafar Gobernuak erreforma honekiko adierazitako jarrera epela ikusita eta Madrilgo Kongresuan proiektua behin aurkeztuta, Parlamentuak honek bere jarrera berretsi eta Nafar Gobernuari iritzi hori aintzat har dezala eta erreformari aurre egin diezaioela eskatzea beharrezkoa dela deritzogu.

Izan ere, proiektu hau gure eskumenei egiten zaien beste eraso larri bat da, gure ustez. Haste-ko, gure beharretatik, gure errealitate sozial eta linguistikotik erabat urrun dagoen proiektua da. Denontzako kafea ezarri nahi du Estatuak, ikuspegi erabat uniformizatzailez, gure errealitatea eta beharrak inolaz ere aintzat hartu gabe.

Ildo horretatik, eskola porrotari aurre egiteko eta itxuraz hezkuntzaren kalitatea hobetzeko aitzakia darabil, eskuduntza murrizketa eta zentralismoan areagotzeko asmoz.

Ikusi besterik ez dago curriculumaren izaera zentralizatzailean sakontzeko planteamendua. Eskoletan landu beharreko derrigorrezko etapetako eta batxilergoko irakasgai ardatzen edukiaren %50 estatuak ezartzen du, berriro ere. Baina horretaz gain, etapa amaieretan egin beharreko

ebaluazio probak ezartzen ditu. Curriculumuma erabat baldintzatzeko asmoa duten frogak dira, Estatuak diseinatutakoak, erkidego guztietarako berdinak, eta kanpoko irakasleek zuzenduta.

Froga hauek ikasleen bereizkeria goiztiarra eta oztopo lasterketa sustatzen dute. Eta, horretaz gain, ikastetxeen eta irakasleen lanaren autonomian eskusartze larria da, ikasleen oinarrizko titulazioa ere froga horren menpe uzten baita.

Bestetik, hezkuntzaren kontzepzioan ideologikoki atzerakada sakona da, ikuspegi neoliberal gailentzen baita. Irizpide pedagogiko eta integritzaileak alde batera uzten ditu. Ekitatearen aurka proiektua da, zalantzarik gabe, eta ikasleen aniztasuna ez du inolaz ere aintzat hartzen.

Aitzitik, hezkuntzaren merkantilizazioa bultzatzen du. Izan ere, erreforma honen helburua hezkuntza eta ikasleak ekonomiaren, enpresen eta merkatuen beharren baitara moldatzea da. “Enplegarritasuna” hobetzeko aitzakiaz, ikasleen aukera berdintasuna mugatzen du, ikasleen bereizkeria goiztiarra sustatuz eta “lehen” mailako eta “bigarren” mailako ikasleak sortzeko arriskua areagotuz.

Horren baitan aldatzen da DBHko 4. ikasturtea, moldatzen da Lanbide Heziketa eta sortzen da “prestakuntza eta ikasketa kontratua”. Lanbide Heziketa dualaren planteamendua ere eskulan merkea sortzeko bide arriskutsua iruditzen zaigu, enpresa jakin batzuentzako mesede, ikasleentzat baino gehiago.

Edukiei dagokionez, adoktrinamendu kutsu sakona dauka proiektuak, erabat ideologizantea da. Ikusi besterik ez dago sektore ultrakatolikoak eta Eliza Katolikoa asebetetzeko asmoz, sexu bereizkeria egiten duten ikastetxeei edo erlijioaren irakasgaiari ematen zaien trataera, edo “Herritartasunerako Hezkuntza” ezabatu izana.

Azkenik, benetan larria iruditzen zaigun beste eraso bat, bertako hizkuntzari emandako trataera da, hau da, euskarari. Proiektuak duen helburua irakaskuntzan gaztelania zabaltzea eta hizkuntza propioen garrantzia eta presentzia murriztea da. Eta, zalantzarik gabe, murgiltze eredu kolokan jartzen du.

Izan ere, proiektuaren baitan, gaztelania eta ingelesa enborreko irakasgaiak izango dira, baina, aldiz, euskara ez, espezialitatekoa izango baita. Horrek esan nahi du ez dela ebaluagarria izanen etapa amaieretako probetan, ezta DBHko oinarrizko titulazioa lortzeko proban ere.

Proiektu hau, hortaz, inoluzio eta eskubide urraketa berri bat da, eta erantzun tinkoa eman behar diogulakoan gaude. Eta, aldi berean, geure errealitateari eta beharrei erantzungo dien hezkuntza politika eta proiektua aldarrikatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Honengatik guztirengatik aurkezten dugu honako ebazpen proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak LOMCErekiko bere desadostasun osoa adierazi eta berau errefusatu egiten du. Ondorioz, Espainiako Gobernuak premiatzen du proiektua bertan behera utz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du nafar herritarron hezkuntza eta hizkuntza eskubideak modu aktiboan defenda ditzan LOMCEren inposaketaren aurrean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafar Gobernuak premiatzen du LOMCE onartzen bada, gure eskumenak baliatu eta Nafarroan ezar ez dadin bide guztiak urra ditzan

Iruñean, 2013ko maiatzaren 29an

Foru Parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Nekane Pérez Irazábal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da produktu finantzarioen ikuskapen-kanpaina bat egin dezan, balizko abusuzko klausulak hautemate aldera.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita produktu finantzarioen ikuskapen-kanpaina bat egin dezan, balizko abusuzko klausulak hautemate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, finantza-entitateek merkaturatutako produktuaren abusuzko klausulen erabilera ikuskatzeko kanpaina bat egiteko eskatzeari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak, Kontsumo Zerbitzuaren bitartez, herritarren babeserako jardueretako bat zehazten du arlo honetan, ikuskapen lanaren bidez merkaturatutako kontrolatzeko ekintzak abian jarrita.

Zerbitzuen sektoreko balizko jarduketan artean, Nafarroako Gobernua agertu da informazioarekin, publikitatearekin, erreklamazio orriekin, kontratuekin, abusuzko klausulekin, prezio-tarifekin eta abarrekin zerikusia duten gaien kontrolaren alde.

“Lurzoru klausula” izenekoek garrantzi handiagoa hartu dute azken asteotan, Auzitegi Gorenak emandako bi epairen ondorioz.

Epai horietan, Auzitegi Gorenak, jurisprudentzia ezartzen duen erabaki baten bidez, esaten du lurzoru klausulak baliodunak izan direla kontsumitzaileekin eginiko kontratuetan gardentasun bereziko baldintzak betetzen direnean soilik. Auzitegi Gorenak gehitzen du klausula horiek ez dutela ulergarriak izan behar beren kasa soilik, baizik eta bezeroek ezagutu eta ulertu egin behar dituzten klausula horiek kontratuan jasotzeak dakartzan ondorio ekonomikoak.

Auzitegi Gorenako arlo zibileko salak dio, gainera, herritarrei informazioa “modu argian eta nabarian” eman behar zaiela, eta debekatzen die banku entitateei etorkizunean klausula horiek lehengo modu berean erabiltzea.

Entitate finantzarioek beren zerbitzuen erabiltzaileei lurzoru klausulak aplikatzeko aukera ez da mugatzen hipoteketara; aldiz, beste produktu batzuetan ere aurki daitezke halako klausulak, hala nola kreditu txarteletan, kontsumorako kredituetan, lehentasunezko partaidetzetan edo “swap” deiturikoetan.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. 2013an zehar egin dezan Nafarroan kokaturiko entitate finantzarioek merkaturatzen dituzten produktuen ikuskapen kanpaina bat, kontsumitzaileei aplikatzen zaizkien balizko abusuzko klausulak detektatze aldera.

2. Ekimen hori modu erregularrean jaso dezan Nafarroako Kontsumo Zerbitzuaren jarduketan egutegian.

3. Balizko abusuzko klausulei buruzko ahalik eta informazio gehien jartzea kontsumitzaileak artatzeko bulegoetan eta Nafarroako Gobernuaren webgunean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da berriro azterdezan kaskoaren derrigorrezkotasuna bizikleta erabiltzaileentzat, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen denaren arabera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita berriro azterdezan kaskoaren derrigorrezkotasuna bizikleta erabiltzaileentzat, Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen denaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan, Espainiako udalerrri askok apustu sendoa egin dute herritarren artean garraio eta aisiarako bitarteko gisa bizikleta erabil dadin sustatzearen alde, eta, horretarako, hiriguneetako mugikortasuna eta airearen eta osasun publikoaren kalitatea hobetu dute, eta horren erakusgarri da bizikletentzako bide bereziak egokitu eta seinalizatu izana edota bizikletak alokatzeko udal zerbitzuak abian jarri izana.

Ezin da ahaztu komunitate zientifikoak eta medikoak agerian utzi dituztela bizikletan egunero ibiltzeak dituen onurak, eta bai Osasunaren Mundu Erakundeak bai Bide Segurtasunerako Europako Behatokiak (European Road Safety Observatory, ERSO) aitortu dute egunean 30 minutuz pedalei eragitea dela gaixotasun koronarioen eta gizentasunaren aurkako jardun eraginkorrenetako bat.

Espainiako Gobernuak argitara eman du Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Zirkulazio Araudi Orokorren erreforma-proiektuaren edukia, non jasotzen baita hiriko joan-etorrietan kaskoa erabiltzeko derrigortasuna, zeina aldatu egiten baita garraio bide hori asko erabiltzen den herrialdeetan –hala nola Alemania, Danimarka, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Herbehereak eta Portugal– egiten denetik; izan ere, herrialde horietan kaskoa erabiltzea ez da derrigorrezkoa.

2011n, txirrindulariekin zerikusia zuten 3.500 istripu izan ziren Estatuan, eta horietako gehienak errepidean gertatu ziren –errepidean derrigorrezkoa da kaskoaren erabilera–; halaber, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak berak emandako datuek erakusten dute txirrindulariek kaskoa erabiltzea ez dela esanguratsua buzeturreko eta entzefaloko lesioak saihesteko eta, horrenbestez, ez dago inongo justifikaziorik hiriko bideetan kaskoaren erabilera txirrindularientzat derrigorrezkoa izateko. Gainera, txirrindularientzako kasko homologatuak, teknikoki, ez ditu halako lesioak saihesten; are gutxiago kalteak ibilgailu motordunek harrapatuta gertatzen direnean, eta hala gertatu ohi dira istripu larri gehienak.

Bizikleta-erabiltzaileen elkarte desberdinek –hala nola “Con Bici” koordinakundeak, Espainia osoko 58 elkarte ordezkatzeko dituen 25 urteetan– eta Bizikletaren Mahaiak segurtasun neurri aktibo gehiago eskatzen dituzte istripuak saihesteko.

Mapfre Fundazioak Herbehereetako adibidea jartzen du –tradizio handiko herrialdea, hirian bizikleta erabiltzeari dagokionez– eta dio bertan ez dela beharrezkotzat jo txirrindulariak kaskoa erabiltzera behartzea bide segurtasuneko neurri gisa. Halaber, mundu mailako eragile garrantzitsua den Holandako Bide Segurtasunerako Ikerketa-institutuak (Stichting Wetenschappelijk Onderzoek Verkeersveiligheid, SWOV) gomendatzen du, derrigortasunaren alternatiba gisa, kaskoaren borondatezko erabilera sustatzea txirrindularien artean.

Kaskoa erabiltzearen derrigortasunak eragin okerra izanen du bai alokairuko zerbitzu publikoaren erabileran bai bizikleta partikularren erabile-

ran, eta horrek guztiak ekar lezake erabiltzaile kopurua murriztea eta, horrenbestez, txirrindularien segurtasuna murriztea, bai eta bizikletaren sektorearekin zerikusi zuzena duten negozio eta lanpostuak kaltetzea ere, ziurrenik eskaera murriztu eginen balitzateke.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak positiboki baloratzen du Zirkulazio Araudi Orokorren testu berriak zenbait alderdi azpimarratzea, hala nola trafikoa-
ren baketzea, bide segurtasunaren areagotzea eta bizikletaren erabileraren sustapena.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eginiko proposamenarekin, zeinak bizikleta erabiltzaileak derrigortzen baititu hiriko bideetan kaskoa erabiltzera, Zirkulazio Araudi Orokorra aldatzeko zirriborroan agertzen den moduan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekin premiatzen du berriro azter ditzan proposamen horiek, kontuan hartuta erabiltzaileen eta bizikletaren aldeko elkarten iritzia, txirrindularien istripuen prebentzioa hobetzeko segurtasun neurri aktiboak ezartzeari dagokionez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 30ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuarekin da berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuarekiko, negoziazioei Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua mantentze aldera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Sozialistak de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari degokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernuarekin da berriro ekin diezaien Espainiako Gobernuare-

kiko, negoziazioei Prestazio Handiko Trenaren aurreko proiektua mantentze aldera. Mozio hori 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baititu Zangozako Udalak Esako urtegiaren segurtasunari eta hura handitzeari buruz eginiko eskaerak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babesten ditu Zangozako Udalak Esako urtegiaren segurtasunari eta hura handitzeari buruz eginiko eskaerak; hain zuzen, txosten independente bat egitekoa eta adituen mahai bat osatzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak babesten du Nafarroako Gobernuak eska dezala azterlan independente bat berehala egiteko Esako urtegiaren segurtasunari buruz, bai egungo egoeran bai han-

ditzeari dagokionez, ziurtatuta azterketa horren independentzia eta zorrotzasun teknikoa.

3. Nafarroako Parlamentuak babesten du adituen mahai bat osatzea (EKHko teknikarien, Nafarroako Gobernuaren eta gizarte-taldeen parte-hartzearekin), non aztertuko diren dauden txosten tekniko desberdinak eta hartu beharreko neurriak proposatuko diren, obren segurtasun mailarik handiena bermatze aldera.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak esku hartu eta bitartekari lana egin dezan, Irurtzungo “Inasa Foil” enpresako lanpostuak mantentzea eta hartzekodunei ordaintzea lortze aldera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak esku hartu eta bitartekari lana egin dezan, ahalik eta lanpostu gehien mantentzea eta hartzekodunei ahalik eta gehien ordaintzea lortze aldera.

2. Nafarroako Gobernuak uste du Nafarroako Gobernua eragile aktibo dela eta izan behar

duela, Inasa ixtearen alternatiba bat sustatzeko. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu bil dadin jabearekin, hartzekodunen konkurtsoko administratzailearekin, alderdi sozialarekin eta inbertitzaileekin, INASAn enplegua mantentzeko konponbide egokiena bilatzeko.”

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Lasaitasuna” eta “El mirador de Yesa” urbanizazioetan, Esako urtegiaren eskuinaldeko mazelan izan diren lerraduren ondorioz ebakuatu diren etxebizitzetarako buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, “Lasaitasuna” eta “El mirador de Yesa” urbanizazioetan, Esako urtegiaren eskuinaldeko mazelan izan diren lerraduren ondorioz ebakuatu diren etxebizitzetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Sustapen Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hiru hilabetetik gora igaro dira zenbait familia Esako udal dermioan dauden “Lasaitasuna” eta “El mirador de Yesa” urbanizazioetako etxebizitzetatik aterarazi zituztenetik, Esako urtegiaren eskuinaldeko mazelan izan diren lerraduren ondorioz.

Galdera:

• Zer aurreikuspen dago gai horri dagokionez?

• Pertsona horiek noiz itzuli ahalko dira beren etxetara?

• Noiz bota eta berreraikiko dira erortzeko zorian dauden etxeak, eta noiz egingen dira ur ihesen eta ur hornidurarako sareko konponketak?

• Nork hartuko ditu bere gain gastuak eta beharrezkoak diren obrak?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren aurrean defendatuko dituen 2013. urterako defizit helburu berekiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren aurrean defendatuko dituen 2013. urterako defizit helburu berekiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak 2013rako zer defizit-helburu propio defendatuko ditu Estatuaren aurrean? Zifra zehatza jakin nahi dugu.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen planari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak sei hilabeteko epea eman zion Hezkuntza Departamentuari Sarrigurenerako hezkuntza dotazio publikoen plan bat aurkezteko. Epe hori jada amaitu denez, hauxe jakin nahi dut:

1. Zer azpiegitura eta nolako antolamendua aurreikusten ditu Hezkuntza Departamentuak, Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte), Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolatzeko-beharrizanei erantzun ahal izateko?

2. Zeintzuk dira azpiegitura horiek eraikitze eta bertan jardunari ekiteko epeak?

3. Aurreikusita al dago nolabaiteko neurri iraunkorrik hartzea azpiegitura horiek jardunean hasi baino lehen?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko enplegu eskaintza publikoari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko enplegu eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 11n, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Iruzur Fiskalaren Aurkako Neurriari buruzko Foru Legea onetsi zuen. Bertan, bereziki lan eskaintza publikoari buruzko berariazko xedapen gehigarri berri batean, ondokoa agintzen zaio Nafarroako Gobernuari: "Nafarroako Gobernuak, 2013. urtean, enplegu publikoaren eskaintzarako deialdi bat eginen du, ehuneko 20 handitzeko Ogasuneko teknikarien kopurua, behar

diren neurriak hartuko ditu hutsik dauden lanpostuak Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen lanpostu bihurtzeko eta lanpostu horiek betetzeko, eta, halaber, behar diren xedapenak emanen ditu Nafarroako Zerga Ogasuneko langileen ordezkapenari begira, halako moduz non ziurtatuta egonen den zerga-iruzurraren aurkako borroka eraginkorra izatea."

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

1.- Lan eskaintza publikoko deialdiari buruz:

a) Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenak galdera hau jaso den egunera bitartean.

b) Lan eskaintza publikoko deialdiaren aurreikuspena, egutegiaren arabera. .

2.- Lanpostu hutsak bihurtu eta betetzeari dagokionez:

a) Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenak galdera hau jaso den egunera bitartean.

b) Lanpostuak bihurtu eta betetzeari buruzko aurreikuspena, egutegiaren arabera.

3.- Ordezkapenen arloan bidezkoak diren aldaketek dagokienez:

a) Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenak galdera hau jaso den egunera bitartean.

b) Eginiko edo egin beharreko ordezkapenen eta aldaketen aurreikuspena, egutegiaren arabera.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zerga-betebeharrak betetzeko herritarrek daukaten erantzukizunari buruz kontzientziatzeko eta hezteko hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 11n, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Iruzur Fiskalaren Aurkako Neurriari buruzko Foru Legea onetsi zuen. Bertan jasotzen da xedapen gehigarri bat, zerga-betebeharrak betetzeko kontzientzia-hartzeari eta heziketari buruzkoa, eta espresuki aipatzen da "hezkuntza-, informazio- eta komunikazio-estrategia bat, herritarrek kontzientziatu eta erantzukizunean eta tributu-betebeharren betetzean hezteko".

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

1- Nafarroako Gobernuak egin al du zuzemenik aipatu estrategia hori zehazte aldera?

2.- Nori agindu zaio estrategia hori prestatzeko?

3.- Zein da aurreikuspena, egutegiaren arabera, estrategia hori prestatzeko prozesua burutzeari dagokionez?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko lan batzorde iraunkorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 11n, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Iruzur Fiskalaren Aurkako Neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari agintzen zaio, bereziki artikuluko batean, lan batzorde iraunkor bat era

dezan, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak hasi al du izapiderik aipatu lan batzorde iraunkor hori sortzeko?

2.- Noiz aurreikusten du Nafarroako Gobernuak lan batzorde horren lehen bilerarako deialdia egitea?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehazteko eta aztertzeo ikerlanari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehazteko eta aztertzeo ikerlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarrian aurreikusten da Nafarroako Gobernuak ikerlan bat egitea, Nafarroako ezkutuko ekonomiaren errealitatea zehaztu eta aztertzeo.

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zein prestaketa-fasetan dago aipatu ikerlana?

2.- Ikerlan hori noiz bukatzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Galdera, Zangozako San Salvador elizari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Zangozako San Salvador elizari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak iragarri duenez, 53.200 euroko kontusail bat bideratuko da Zangozako San Salvatore elizaren planoak altxatzeko. Iragarpen hori ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

– Proiektua zertan den, hasita dagoen ala ez. Aurreikusitako jarduketaren plana.

– Lanak departamentuak berak egingen dituen ala kanpoko baliabideak erabiliko diren. Kasu bada, deialdia egin den jakin nahi dugu, eta, hala bada, deialdi mota, bertan jasotako baldintzak eta aurkeztu den eskaintza kopurua.

– Departamentuaren barne-lana bada, jakin nahi dugu teknikariak hasi ote diren planoak altxatzen.

– Jarduketaren helburua eta etorkizunean hartuko diren neurriak, plano-aldatzea amaitu ondoren.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren banaketako formularen gainean NUPEk egin duen azterlanari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren banaketako formularen gainean NUPEk egin duen azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak, parlamentari honek erregistraturiko galdera bati emandako erantzunean –galdera zen Tafalla eta Lizarrako udalerriei eskualdeburu izaera aitortzeari buruzkoa, haien udal-finantzaketa formulari dagokionez– ondokoa adierazi zuen: “Departamentu honen balorazioaz gain, NUPek ere aztertu zuen alde zuzenetik, Ogasuneko Nafarroako tributuetan parte hartzeko fun-

tsaren banaketarako formula. Azterketa horretatik suertatu zen zenbait aldagairen aplikazioa, zeinen artean ez zen jaso eskualdeburu izaera, ez baitzen esanguratsua gastuaren adierazpenean.”

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1.- Azterlanaren zein ataletatik ondorioztatzen du kontseilari jaunak eragina “ez dela esanguratsua” udalerriri horien gastuaren adierazpenean?

2.- Txosten hori bere osotasunean jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Garraioen Kontseiluari buruzkoa.*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Garraioen Kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Martxoaren 20ko 61/1985 Foru Dekretuan ezarritakoa dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Nafarroako Garaioaren Kontseiluak azken hamar urteotan eginiko bilerak, bertaratutako pertsonak eta aztertutako gaiak.

– Kontseiluaren egungo osaera.

Datuen zerrenda eskuratu nahiko nuke, urteen arabera antolatuta.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

238/2007 Foru Dekretuan ezarritakoa dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak orain arte eginiko bilerak, bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gaiak.

– Kontseiluaren egungo osaketa.

Bileren zerrenda eskuratu nahiko nuke, urteen arabera.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea